

mendia ▸ IBILBIDEAK

Lizarrusti eta Etxegarate mendateak tontorrez tontor lotuko ditugu txango dotorean

XABIER ARANGUREN

Nafarroako Burunda eta Gipuzkoako Agauntza erreken artean dauden mendiei Altzania esaten zaie, nahiz eta jakitun batzuk markes basoa deitu. Markes horren babesa dela edo, basoa osasun onean mantendu da orain arte. Hori dela eta, nahiz eta pinudi ustiaketa bakan batzuk egon, Gipuzkoako pagadi handienetakoa da inguruotakoa, Aralarko parke naturalaren barruan. Antzinako kontrabandisten edo mikeleteen istorio zaharrak atzean utzirik, isiltasun sakonez beteko ditugu belarriak, ehizatariak uzten badigute behintzat.

Lizarrustitik aterako gara, Gipuzkoako biraren marka zuri-gorri jarraituz. Basoan barna, bideak Askoko lepora eramango gaitu, aldats gora. Lepoan, mendi hegala hartuko dugu ezkerretik, eta kartel bat aurkituko dugu (*Antsulla, 12 min.*), zeinak Txaradigorriko trikuharrira eramango gaituen, izen bereko tontorrean (979m.) izaki. Merez du haraino igotzea, horixe baita aurkituko ditugun trikuharri guztietan politena.

Hortik aurrera mendealde-rantz joatea izango da gure erreferentzia nagusia. Norabide horretan, lepo batera jaisten ari garela, beste bi trikuharri topatuko ditugu: Mintxueta eta Zelatamuño (962m.). Han, mugarri berezia, Etxarri-Bakaiku eta Bakaiku bantzen dituen, hain zuzen ere. Berriaz behera egingo dugu, eta Beitzetako lepora helduko gara. Eta ostera ere maldan gora, izen bereko tontorrera igoko gara (924m.). Segidan, desnibel apur bat galdurik, Argonizko trikuharria aurkituko dugu, eta berriro gorantz, Argonizko tontorrera (936m.) igoko gara. Gorabehera ugari txango honetan, behera hartuko dugu segidan, Bernoako portura oraingoran (804m.). Hor, galtzada zahar baten hondakinek beste garai batzuk gogoraraziko dizkigute, bideak Sakana eta Ataungo lurrak lotzen zitueneko garaiak.

MUGA SEGIZ. Lepo horretan, trikuharri baten eta Ergoiena auzotik igotzen den bidezidor baten azarnak geratzen dira. Atsedena baten ondoren, igoera luze samar bat eta Intxusburuko tontorrera (943 m.) helduko gara. Han, hego eta

Baso eta aztarnen bideetatik



Beitzeta eta Argonitz mendien artean dagoen baso zatia. MENDIKAT



mendealdeko ikuspegia dastatu eta gero, Intxusburuko trikuharrian geldidune bat egingo dugu. Inguruotan argi eta tentuz ibili beharko dugu norabidearekin, urratsak galdutako Beortegiko lepora jaisteko.

Hortik aurrera, leku asko topatuko ditugu zuhaitzik gabekoak, eta pista batetik segituko dugu.

Intxusburuko trikuharria pasata, tentuz ibili beharko dugu, galdutako Beortegiko lepora jaisteko

Igartzako bi trikuharrien ondotik pasatu eta gero, Igartzako muinora (874m.) ailegatuko gara. Igartzatik aurrera, erreferentziak zeharo korapilatsuak dira, eta kontuz ibili behar da. Nafarroa eta Gipuzkoa arteko muga segitu behar da Salsamendiko lepora ateratzeko. Hara, pista zabal bat heltzen da Altsasu aldetik, eta, guretzat, sastra-

ka eta sasietatik ateratzeko aitzakia ederra izango da.

Lepo horretan aurkituko ditugu mikeleteen etxe zahar baten hondakinak, eta horietako harri batean eserita atsedean hartzeko aukera izngo dugu. Behin berrindarturik, muinotik aurrera segituko dugu pagadi barruan Muñan menditxoraino (913m.). Larrauzeko trikuharria ikusi eta gero. Berehala jaitziko gara lepo batera (850m.). Han, bide batek Ataungo San Gregorioraino darama. Iturri bat ere ba omen dago, baina guk ez genuen aurkitu. Aipatutako bidea alde batera utzi, eta hesiari jarraituko diogu, Balankalekuko tontorrera abiatuz. Laster, Altsasutik datorren pista bat aurkituko dugu, ehizatariak erabiltzen dutena haraino joateko. Haiek egindako txapola eta zerrikeriak atzean utzita, Balankalekura iritsiko gara (987 m.). Gailur soil horretatik Aralarko eta Aizkorriko ikuspegi polita izango dugu, baina baita Etxegarateko burrunba ere. Geratzen zaigun bidea ikusten da, Etxegarate-rainoko jaitziera, marka zuri-gorri jarraituz.



Eguraldiak eragina du zure bizitzan. Toki bakoitzeko eguraliaren berri zehatza izatea oso mesedegarri izan liteke zuretzat. Gure herriko informazio meteorologiko guztia aurkitzeko

www.euskalmet.net



euskalmet
euskal meteorologia agintzia

